


BALIOA

Gure lokalaren helburu nagusia entretenimendua proportzionatzea da. Gaur egungo kotsolak nahiko garestiak dira, horregatik gure salak arrakasta izango du, kotsola bat erosi nahi ez duten pertsona guztiek bertan jolastu ahal izango dutelako. Kotsola berriak izateaz gain, adibidez, Play-Station-a, kotsola zaharrak, adin guztietarako jokoak, gaur egungoak eta



baita joko zaharrak ere, izango ditugu. Badakigu kotsolak gain, jokoak ere garestiak direla eta hiru aldiz jolastu ondoren, kajoian sartu eta ez dela berriro erabiltzen. Hori aprobetxatuz, jendeak erabiltzen ez dituen jokoak, gure salan utzi ahal izango dituzte diru truke eta bertan, jokoak lehen eskuz



erosi ezin izan dituzten pertsonak, bigarren eskuz erosi ahal izango dituzte. Gure enpresak entretenimendua proportzionatuko die gure bezeroei, baina orduak eta orduak kotsola baten aurrean egotea ez da inorentzako osasuntsua eta gure bezeroen segurtasuna sustatzeko abisu bat jarriko dugu makina bakoitzean: “Denbora luze bat jolasten egon

ondoren, deskantsatu”. Sala errekreatibo baten ideia modernizatu nahi dugu, eta horregatik gurea desberdina izango da. Sala osoan zehar kotsola berriak izango dira, baina baita kotsola zahar batzuk ere.